

GAIA: Oinezkoen bide argiztatuak autoek pertsonak ikus ditzaten ilunpean

• Nola erakarriko dituzue bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko dituzue bezero horiek?

Gure bezeroak erakartzeko, ez ditugu gauza asko egin beharko, gu garela enpresa bakarra zerbitzu hori eskaintzen duena. Hala eta guztiz ere, guk, gure bezeroak erakartzeko hainbat metodo erabiliko ditugu; batetik, publizitate kanpainak egingo ditugu geure zerbitzua erakutsi ahal izateko, eta gainera, pertsona ezagunekin egingo dugu lan, eskainiko duguna jende gehiagori erakusteko edota iristeko. Bestetik, gaur egun oso modan dagoen sare sozialean, Instagram, alegia, kontu bat sortuko dugu eta bertan zerbitzuari buruzko informazio eta ezaugarri guztiak aipatuko ditugu. Hori gutxi balitz, enpresa ireki eta lehenengo hilabeteetan beherapen bereziak egingo ditugu, bezeroek gure konfiantza irabaz dezaten, hau da, euren lehialtasuna lortu ahal izateko.

Gure zerbitzua kontratatzen duen bakoitzak, gure langile baten laguntza pertsonal eskainia izango du, baina webgune batetik egiten dugunez lan, bertan autozerbitzua edukiko dute eskuragarri. Azkenik, geure bezeroak mantentzeko, geure bezero lehialei, tarifa eta prezio bereziak eskainiko dizkiegu. Ondorioz, euren lehialtasunari eustea lortuko dugu.